

**THE LAST SHOWGIRL • Estatu Batuak**

Gia Coppola (zuzendaria)  
Pamela Anderson (aktorea)

# Pamela Anderson: “Las Vegas, egunez makillajerik gabeko emakume bat bezala da”

SERGIO BASURKO

Hirugarren film luzea du Gia Coppolak, Francis Ford Coppola ezagunaren bilobak, eta badirudi ari dela gero eta trebezia gehiago hartzen, kontuan hartuta 23 urterekin zuzendu zuela bere lehen film luzea. 37 ditu orain, eta Pamela Anderson aukeratu du protagonista gisa.

Anderson esker oneko agertu da jasotako aukeragatik. “Inoiz ez zait horrelako paperik eskaini, oso hunkituta nago. Papera asko interesatu zitzaidan eta oso gertukoa sentitu nuen”. Gia Coppolak esker ona itzuli dio. “Ez zegoen Pamela baino aktore hoberik rol hori interpretatzeko. Beste inork ezin zuen Shelly gorpuztu”.

Filmean leku hori betetzeko nahia ere adierazi du. “Giak gidoi honekin deitzea bedeinkapena izan da, oso inspiratua eta eskertua sentitu nintzen. Banekien gehiago egin nezakeela, beraz, niretzat une zirraragarria da”.

Ikuskizun areto batean egiten du lan protagonistak, baina ixtera doa lokala. Emakumeak 57 urte ditu, 30 daramatza bertan lanean, eta galduta aurkituko du bere burua, gainontzeko konpainietan ez baitute kontratatuko, talenturik ez duelako eta ‘zaharra’ delako. Ezer gabe geratuko da, beraz. Aspalditik ez da alabarekin bizi; bizitzatik alderatu zuen, gauero aretora lanera joan behar izaten zuelako. Orain, bizitza birplanteatu eta lanpostu berri bat bilatzearekin batera, alaba berreskuratzen ahaleginduko da.

Pamela Andersonnek filmean jokatutako rolaren eta bere benetako bizipenen arteko harremanaz hitz egin du. “Harreman handia dut pertsonaiaekin, esperientzia pertsonalak baliatu ditut, hurbil ikusten dut neure buruarengandik. Bizi izan dudak bizitza honek gidoiarekin lotzen ninduen. Hamarkada batzuk galdu ditut nire lanbide bizitzan eta aukera



Pamela Anderson, eta Gia Coppola zuzendaria, Kursaalaren babespean.

GARI GARAIALDE

## Anderson: “Neure buruaz zalantza egin dut askotan, eta besteek ere bai”

eskaini zidatenean horrelako paper bat egiteko, nire azken aukera izan zitekeela pentsatu nuen”.

“Nire ibilbidearen parte handi bat nire itxura fisikoaren menpe egon da, eta hori izan da neure buruarekin esperimentu hau egiteko arrazoietakoa bat. Geruzak kendu ditut, nor naizen gogoratu, uko egin diot besteek ni definitzeari, eta lanbide honetan aritzeko bizipozari eutsi diot”, adierazi du Andersonnek harro.

Zuzendari estatubatuarrek film hau egiteko arrazoiak azaldu ditu. “Las Vegasen pelikula bat filmatu nahi izan dut beti. Show-nesken mundua beti interesatu izan zait. Oso arte-modu berezia da jantzi distiratsu eta lumadunez jantzitako dantzari hauena. Las Vegasen ikur moduko bat dira”. Metafora bat egin du Andersonnek: “Las Vegas, egunez makillajerik gabeko emakume bat bezala da, hauskorra da”.

Zuzendariaren hitzetan, “amets amerikarraren metafora bat da” filma, “dena ez baita urre; jende askok dauka bizimodu hori”. Halaber, iritzi dio artistentzat zaila dela amets baten bila abiatzea, bereziki emakumeen kasuan, eta asmo hori bertan behera noiz utzi erabakitzea ere bai, “errealitatearekin talka ere hor dagoelako eta beti ezin baita bizimodua horrela aurrera aterata”.

Izan ere, alabak bere amaren show-a ikusten duenean jartzen duen aurpegia ikusita, ulertzera ematen da, edo gutxienez alabak iradoki duena zera da, halako entretenimendu aretoek geroz eta leku gutxiago dutela gizartean.

## Never too late for the role of a lifetime

The US director Gia Coppola presented *The Last Showgirl* yesterday in the Official Selection. At a press conference she gave after the screening of the film, accompanied by its star, Pamela Anderson, the director revealed that she had always wanted to shoot a film in Las Vegas, and she had also always been interested in the world of showgirls, as it is such a symbol of the city. Pamela Anderson confessed that she had been overwhelmed when

she read the script: “I’d never been offered a part like this,” and she had felt really drawn to the mother-daughter relationship. Asked whether she had ever doubted her talent, Coppola said that, “being creative comes with a lot of insecurity”, so she felt reassured that someone like Pedro Almodóvar had brought this up during his Donostia award acceptance speech. “You just keep going and turn off the negative voice in your head”, she explained.

Pamela Anderson also stressed that it had been interesting to show Las Vegas in the daytime: “it’s more vulnerable and revealing. It’s like a woman without makeup.” She also added the experience of shooting the film was like a second act for her. “I had a few missing decades, as if I went from *Baywatch* to Broadway with nothing in between. It was really exciting to do this at my age. It’s never too late.”

# EUSKAL EMAKUME ZINEMAGILEAK IV

## CINEASTAS VASCAS IV

URRIA - ABENDUA  
OCTUBRE - DICIEMBRE  
**2024**

Antolatzailea | Organizador

Kolaboratzaileak eta egoitzak | Colaboradores y sedes

Informazio gehiago | Más información

**EUSKADIKO FILATEGIA**  
FILMOTECA VASCA

**ARTIUM MUSEOA**

**TABAKALERA**

[www.filmoteka.eus](http://www.filmoteka.eus)